

noaua

SANTUENEA JAI-GIROAN MURGILDUKO DA ASTEBURU HONETAN

Eguraldia oztopo ez bada, ostiralean arratsaldeko 16:00etan hasiko dira ur-jolasak / 12-15



ARGAZKIA: NOAUA

Iñurri elkarteak diru bilketa hasi du dokumental bat egin ahal izateko / 05

21 urte eta gero, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara itzuli da Uxue Fernandez / 06

Baxurde Krosa bertan behera, ez dutelako behar beste laguntza biltzerik izan / 17

Igandean honetan, Enrike Abril errebote txapelketako partida Zubietan / 22

JARRAI IEZAGUZU
SARE SOZIALETAN

USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN

ARGAZKIAK



www.noaua.eus



@noauaastekaria




@noaua




Noaua Aldizkaria



@noauatb



Ondo para Santueneko festetan!



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



Japón

IRTEERA 2025eko martxoan

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

"Erabateko utzikeriaren adierazgarri"

Duela egun batzuk, Joxe Mari Irazustak hitz batzuk eta hainbat argazki bidali zizkigun: "horrela daude Saria mendebaldeko paduretako behatokia eta oinezkoen bidezidorra. Erabateko utzikeriaren adierazgarri".

Udal iturrien arabera, Foru Aldundiari dagokio Sariako padurako behatokiaren mantenua. Bide batez, herritar honen salaketa Aldundira bideratu du Udalak eta, nonbait, negurako garbituko dituzte begiralekua eta bidezidorrak.



Sariako behatokiak eta oinezkoen pasealekuak txukunketa baten premia dute. ARGAZKIA: JOXE MARI IRAZUSTA.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Irailaren 19tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Irailaren 26an osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

1969ko kinto bazkaria, urriaren 26an Patrin

Urriaren 26an Patri jatetxean elkartuko dira. "50 euro sartu behar dira Rural Kutxako ES32 3008 0259 154771916121 kontu korronte zenbakian, norberaren izen abizenak adierariz. Izena emateko azken eguna urriaren 19a izango da", antolatzaileek aditzera eman dutenez.

1960an jaiotakoen topaketa

Talde bat sortu dute, hurrengo urtean beteko dituzten 65 urteen harira topaketa bat antolatzeko.

Talde horretan parte hartu nahi duenak deitu dezala 655 720 666 telefono zenbakira edo whatsapp mezua bidali dezala telefono zenbaki horretara.

"Goazen kalera" ibilaldi osasuntsua, Aginagan

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Amaieran, Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiкетakoa banatzen dute parte hartzaileen artean. Irailaren 24koa Aginagan egingo da. 10:30ean batuko dira, bertako frontoian.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzzaileak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (1)

Zeruak eta lurrak egin zituana memoria argitzerahatoz neregana. Esperantza badaukat zerorrek emana, kunpliko dedala desio dedana. Amoriozko penakipuina berrietan publiku ahal banitza Euskal Herrietan. Enteratu naiz ongi enkargu hoietan San Jose arratsaldeko hiru t'erdietan.

Kale Nagusia banderatxoz apaindu zuen kontzejuak. Kolore gorri eta horiak hartuta zeukan herri guztia. Balkoiak, farolak, arropak, denak ziren aproposak piper potoaren koloreak pausatzeko. Gertaera potoloa baitzen herrian gertatzen zekoa, eta behar zuen neurriko parafernalia. Urteko aurrekontuetatik zati koxkorra bideratzen zen markesaren etorrerarako. Ezin bestela izan. Musika banda kontratatzen zen, apaingariz betetzen herria, ikuskizunak antolatzen markesa eta bere familiaren atsegingarri... Eta herritarrek ere euren egitekoak izaten zituzten parada bereziko: ile apaindegietan ilara mugagabeak sortzen ziren galant eta lirain egoteko, adibidez, eta armairuan gordetako jantzi dotoreenak txukuntzeko ordua izan ohi zen etorrera hura. Patrikak sose gainezka zituenak jostunari eskatzen zion egiteko edo Donostiara joaten zen erakusleihenotan zerbait txundigarria topatzeko esperantzan. Gainerakoek suaren ondoan josten zituzten urratutako blusak edota soinekoak. Egunak me-

rezi zuen, egunak hala eskatzen zuen.

San Jose egun hura beroa suertatu zen. Eguzki galdatan bildu ziren herritarrak Kale Nagusian. Oxtapetik Saroe jau-regiraino bildu zen jendea, bata bestearen gainean. Lehen leerroan egoteko desirak mutur joka jarri zituen bat baino gehiago. Estatus kontua zegoen denaren atzean. Aurrean egoteak markesarengandik hurbil egotea esan nahi zuen, eta horrez gain, ikuskizun haren parte ez izateak susmoak hauspotzen zituen. "Zergatik ez ote da hau etorri?" Motiboak edozein izanda ere, gaizki pentsatuko zue-nik bazen han bilduta, eta aitzakia merkeenak ere ez zuen balio jendearen irudimena mozteko. "Hura anarkista da, izango du burutazio zororen bat, seguru!", "Abertzale nazkagarri horietako bat da, txokoan atentatuak prestatzen ibiltzen dira hura eta enparauak!", "Eta horrelakorik gertatzen bada?", "Ez, Jainkoaren izenean! Zer pentsatuko dute gainerakoek markesaren aurka egiten badute Usurbilen?", "Horietako

"ZERGATIK EZ DA ORAINDIK IRITSI MARKESA? EZ ZIOTEN, BADA, SEGADARIK EGINGO HONAKO BIDEAN?"

bat ikusiz gero, heldu eta lotu mugi ez dadin!"

Udal korporazioa Patrinea parean zegoen galako jantziekin. Alkandoraren goiko botoiak lepoa estutzen zien, eta bero kolpe baten mehatxuarekin nahasten ziren arnasa hartzeko ezintasunak. Ur pitxerrak bata bestearen atzetik ateratzen zituzten jatetxetik inor zorabiatu ez zedin, eta abanikorik eskura ez izateak bat baino gehiago jarri zuen biraoka. Bero itogarriak gizakiaren txarrena ateratzen omen du, eta itzalpean zeudenei tokia egiteko eskatzea liskarrerako lehen urratsa zen. Kontzejuaren aurkako esanak ere ugaritu ziren. Zergatik ez ote zituzten zuhaitz gehiago landatu Kale Nagusian? Hola, mundu guztia egongo zen lasai eguzki izpien mehatxurik gabe, eta hiri handi eta dotoreetako bulebarren zein hiribideen parekoa izango zukeen Usurbilek.

Zurrunmuruak zabaldu ahal, bando joleak herri sarreratik jauregirainoko bidea egin zuen patxada eskatzen, baina iskanbilak harrotzea besterik ez zuen lortu. Aguazila eta bere gizonak bidali zituen alkateak segidan, eta gauza bat eta bestea tarteko, borrarrekin dinbi-danba hasi ziren, sumisioaren metafora.

"Zergatik ez da oraindik iritsi markesa?", larritasun koitaduz. Familiakotzat zuten herritarrek, eta inoiz ez zen berandu iritsi urteko hitzordu hartara. "Ez zioten, bada, segadarik egingo honako bidean?"

II. Joan Mari Torrealda beka deialdia

"Euskal kultura azterketa gaur", hortxe kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzea xede duen Jakin Fundazioaren eta Usurbilgo Udalaren beka deialdiaren bigarren edizioko gaia.

Epea: urriak 21

Interesdunek urriaren 21era arteko epea dute proiektuok aurkezteko. Informazio gehiago jakin.eus atarian.

Esperientzia Eskolan eta oroimen tailerren izena emateko epea amaitzeko da

Udaleko gizarte zerbitzuek Matia Institutuarekin lankidetzan antolaturiko Esperientzia Eskola 55 urtetik gorakoei zuzendua dago. "Lan mundutik erretiroa hartu eta ikas-teko grina duen orok eman dezake izena", Udaletik azaldu dutenez. Astearteetan izango dira saioak, 16:00-18:00 artean.

Bestalde, oroimen tailerra ere antolatu dute Udalak eta Lahar elkargoak, memoria landu nahi duten adineko pertsonentzat.

Irailaren 25a baino lehen

Ikastaro hauetan irailaren 25era arte eman ahalko da izena gizarte zerbitzuetan (astelehenean ostiralera 9:00-14:00 artean asteazkenetan ezik edo 943 377 110 telefono zenbakian).

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Patxi
bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Xuban Intxaustik zuzenduko du Iñurri elkartekoek sustatu duten dokumentala.

Iñurriren dokumentala finantzatzeko deia

"Hil Arte Bizi dokumentalarekin aurrera egiteko zure laguntza behar dugu, esker handiz jasoko genuke", adierazi dute Iñurri elkarteko kideek sare sozialen bidez.

Irailaren 7ko egun solidario arrakastatsu eta hunkigarria antolatu zuen Iñurri elkartearen egoitza izango dena irekitzeko prestaketa lanetan ari da Usurbilen. Minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik diharduen bilguneak datorren urte hasieran ireki asmo duen guneaz gain, haien lelo nagusia izenburutzat daraman "Hil Arte Bizi" ikus-entzunezko baten sorkuntza lanetan ere ari dira. "Sei atalez osatua da goen dokumental honek gaitasunaren inguruan ikuspegi berezi eta baliotsu bat eskaintzen du elkartearen azken urteetako ibilbidea duela ardatz", sustatzaileen esanetan.

Abuztuan bost urte bete zituen Iñurri Elkarteak egitasmo honekin aurrera jarraitu ahal

izateko ezinbestekoa duen laguntzarako deia egin du. Diru bilketa solidarioari ekin diote. Ekarpenak helbide honetan egin daitezke; <https://eu.goteo.org/project/hil-arte-bizi-vivir-hasta-morir-atarian> hain zuzen.

Bertan dituzue ikus-entzunezko lan honi buruzko xehetasun eta irudi gehiago. Dokumental honetan, "elkar zaintza, saretzea, gaixotasunaren tabuak haustea, minbizia normaliza-

"DOKUMENTALAK GAIXOTASUNAREN INGURUKO IKUSPEGI BEREZI ETA BALIOTSU BAT ESKAINIKO DU"

ztea eta besarkatzearen garrantziaz hitz egiten da".

Helburuak

Proiektuaren helburuen artean dira, Iñurri Elkarteko esanetan, minbizira gerturatzea ikuspegi feminista batetik; minbiziaren duen pertsona bat nola tratatu behar den ikastea, gaixo direnen bizipenak erakutsiz; heriotzari aurre egiteko modu berriak ezagutzea; gaixotasun hau jorratzeko unean gizartearen eta erakundearen gabeziak barneratzea; minbiziduneeuskaletan borrokarekin hunkitzea; minbiziari aurre egiterakoan akonpainamenduak, zaintzak eta "tribuen" zentzuak duen garrantziaz jabetzea; minbiziari lotutako edukiak kulturaren bidez plazaratzea edota gorputz ez normatiboen ezagutza hedatzea. Xuban Intxausti da dokumental honen zuzendaria.

Intxaustik Iñurri elkartearekin lotura estua du. Laguntza bilketarako atarian irakurri ahal izan dugun moduan, bere arrebak izandako minbiziaren harira, elkarteak eginiko lanak motibatu zuen emakumeon ahotsa bilduko duen ikus-entzunezkoa sortzen hastera.

"Xumetik" Eguna gogoratuz

Jose Luis Zumetaren frontoi atzeko muralaren 50. urtemugaren harira iaz Usurbilgo Kulturguneak antolatutako Xumetik herri jaialdia iruditan oroitzeko aukera izango da laster. Egun hartako tailer, bisita gidatu edota herri ikuskizun bikaina berriz oroitzen ahalko dugu, Kulturguneak irailaren 27an gaueko 22:00etan Sutegiko auditorioan antolatu duen proiektioan.

19 langabetu gehiago abuztuan

Aspaldi honetako langabetu kopuru handitze nabarmena izan da Usurbilen abuztuan. Azken hilabeteotako goranzko joera berretsi dute Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko datuek, baita eskualdean eta Gipuzkoan ere.

Estatuko Enplegu Zerbitzuaren arabera, 231 langabetu zeuden udalerri honetan iragan hilabetearen, uztailean baino hemeretzi gehiago, 212 baitzuten herri honetako orduko hartan.

Sektoreka, bereziki zerbitzuenean izan da langabetu kopuruaren handitze nagusia. 149 ziren uztailean, 19 gehiago, 168 abuztuan.

Joera bera Buruntzaldean eta Gipuzkoan

Usurbilen antzera, Beterri Buruntza osoan eta Gipuzkoan ere handitu egin da langabetu kopurua abuztuan; eskualdean 173 langabetu gehiago zenbatu zituen iragan hilabetearen Estatuko Enplegu Zerbitzuak, 1.326 langabetu gehiago Gipuzkoan.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-20:30 Astelehenerdik - Asteazkenera
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kaleazar Auzoa 12, 08, USURBIL Tel 943 36 04 66

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira

649 43 54 75
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako final-zortzirenetan abestuko du igande honetan, Elgoibarren. NOAUA

"Nik ez dut bertsolaritza lehiaren logikatik bizi, eta ez nuke horrela bizi nahi"

UXUE FERNANDEZ LASA BERTSOLARIA, EHU-KO IRAKASLEA

Urretxuarra da jaiotzez, baina urteak daramatza Usurbilen bizitzen. 2003ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan abestu zuenetik, alboratuak zituen txapelketak. Hernaniko Bertso Eskolako kideen 'erruz' bueltatu da lehiara eta udaberrian Hernaniko saioa irabazi eta gero, final-zortzirenetarako sailkatu da. Bertsolaritzaz, lehiaz eta bestelako kontuez jardun dugu Uxuerekin.

Urte hasieran, Gipuzkoa Bertso-tan txapelketan izena eman zenuenean, final-zortzirenetara sailkatzearekin amesten al zenuen?

Gipuzkoa Bertso-tan izena ematearen errudunak bertso eskolan nirekin batera dabil-tzan batzuk dira; pauso hori ematera zirikatu nindutenak. Txapelketaz harago, Donostialdean bizi garen zazpi bat bertsolari badaramatzagu hiru bat urte elkartzen. Ahalduz Bertso Eskola Feministaren bueltan batzen gara Hernanin.

2003koan kantatu zenuen azkenez Gipuzkoako Bertsolari

Txapelketan. 21 urteren bueltan itzuli zara. Ez da ohikoa, ezta?

Baina horrek ez du esan nahi urteotan kantatu ez dudunik. Urte hauetan guztietan, besteak beste, 'sparring' gisa aritu naiz beste bertsokide batzuekin batera.

Itzuli naizen honetan, konturatu naiz kirol egiturara gerturatzen dela txapelketa eta hori izan da akaso gutxien gustatu zaidana. Inondik inora ez nuen txapelketa lehia kode horretan ulertzen. Aurtengo txapelketarako izena eman nuenean, helburua ez zen hurrengo faserako sailkatzea. Are gehiago, ez nuke

fasekako edo mailako helbururik jarri nahi. Zaila da baina hori da nire lanketa nagusienetakoa.

Urteotan beraz, fokutik at egon zara baina ez zara bertsolaritzatik urrun egon.

"AZKEN 21 URTEOTAN EZ DUT TXAPELKETAN ABESTU BAINA EZ DUT SEKULA BERTSOA UTZI"

Oso gertutik jarraitzen dut bertsolaritza. 21 urteotan ez dut txapelketetan abestu baina nik ez dut sekula bertsoa utzi. Ez naiz fokupean egon, ez dut inoiz saio handirik egin, baina adibide bat jartzeagatik, Urretxuko bertso eskolako saio bat jokatuko da datorren astean eta hantxe izango gara. Horrelakoak beti egin ditugu. Dena den, egia da orain arte hesiaren beste aldean egon naizela.

Lehen lerrora itzuli zaren honetan, zaila izango da lehiaren logikatik eskapatzea, ezta?

Bai, baina gauza bat dut alde. Adinak ematen dizun esperientzia. 40 urte berri ditut eta garbi daukat nire egunerokoa ez dela aldatuko, emaitza bat edo beste izan. Eta horrek beste patxada bat ematen dizu.

Hala ere, horretan ari direnak oso ondo ulertzen ditut. Euskal Herriko Txapelketa bi urte barru jokatuko da eta bertan lehiatzeko 18 txartel banatuko dira Gipuzkoako Txapelketa honetan. 18!. Jendeak oso go-goan du datu hori.

Lehen esan dudan bazala, nikez dut bertsolaritza lehiaren logikatik bizi, eta ez nuke horrela bizi nahi. Kirolaria naizen aldetik bai, tarteka dortsala janzen dut (korrika eta bizikletan aritzen da). Nik jolasa eta jokoa oso berezita ditut baina nire inguruak akaso ez.

2003tik hona, asko aldatu al da zure bertsokera?

19 urterekin unibertsitatean hasi berria zen Uxue harekin zerikusi gutxi dut. Eskolarte-koan kantatu eta gero, bazirudien bertsolari izateko Gipuzkoakoan kantatu beharra zegoela. Testuingurua beste bat da orain, eta bizitzaren beste etapa batean nago. Onerako eta txarrerako. Freskura galduko nuen akaso, baina beste gauza batzuk irabaziko nituen. Orain adibidez, gaia planteatu orduko, sentitzen dut badakidala ze ikuspegi hartu nahi dudan –eta inguruak ere hala-ze adierazten dit–.



"Jende asko poztu da nire bueltarekin, eta bueltatzearekin batera, final-zortzirenetara pasa izanarekin". ARGAZKIA: BERTSOZALE.EUS

Udan deskonektatzeko aukerarik izan duzu ala bertsoari emana igaro al duzu oporraldia?

Laneko kontuetan oporrak izan ditut baina bertsoan elkartzen garen taldeko lauk egin dugu aurrera txapelketan, eta elkartzen segi dugu uda partean. Intentsitatea jaitsita, baina batzen jarraitu dugu. Zentzu horretan, bidea izaten ari da politena. Nire kantukideek aitortzea, "ondo egiten duzu bertsoan, Uxue", "izena eman"... Udazkeneko politena ere hori izaten ari da. Jende asko poztu da nire bueltarekin, eta bueltatzearekin batera, final-zortzirenetara pasa izanarekin.

Txapelketen garaian, denok duzue 'entrenatzeko' kuadrillatxo bat. Zu norekin ari zara Elgoibarko final-zortzirena prestatzen?

Hernanin eta Urretxun elkartzen naiz. Hernaniko kantu-

kideak hauek ditut: Eli Pagola, Mainer Arregi, Oihana Arana, Izarne Zelaia, Uxue Alkorta, Alaitz Katarain eta Izaro Bilbao.

Eli Pagola ere Elgoibarko final-zortzirenetan arituko da igande honetan. Iñaki Apalategi, Unai Izagirre, Eneko Araiztegi, Libe Goenaga eta zuk zeuk osatuko duzue seikotea. Ze itxura hartzen diozu saioari?

Pozik nago Elgoibarko seikotearekin. Denak dituzte ezagunak. Hiru belaunalditako bertsolariak arituko gara. 80ko hamarkan jaiotako bi gaude, Iñaki eta ni. Elirekin hiru urte daromatzat astero biltzen, eta gai nontzekoak ezagunak ditut. Seikote kurioa garena uste dut, elkarrekin uztargarri izan gaitzkeenak. Eta hori oso garrantzitsua dela iruditzen zait ze denak joango gara oso urduri. Trantze bat izango da denentzat.

Usurbilen ere hainbat lagun elkartzen zarete, ezta?

Bai, elkartzen jarraitzeko asmoa dugu. Ostegunero batuko gara Potxoenean. Dena den, Usurbilen ez dugu Bertso Eskolaren dinamika jarraitzen. Bapatean egiteko elkartzen gara Aitor Agirre eta biak.

Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin nabarmendu dira azken txapelketetan. Oraingoan ere faborito nagusiak direla esan daiteke?

Norbait haserretuko zaizu, azken buruz-burukoan Agin Laburu aritu zen-eta.

Ilunbeko finalera arte hiru hilabete falta dira oraindik. Irudipena daukat, lehia ikuspegi hutsetik ere, zaila dela estimazio bat egitea. Fase bakoitzeko erdiak kalera doaz, pentsa. Saio bakoitzean gainera, faktore asko daude joan: gaia, nondik heltzen diozun, zure kantukideak zuk hartutako bidea hartzen duen ala ez... Iruditzen zait izen batzuk eman daitezkeela baina oraintxe bertan irekia ikusten dut txapelketa.

NOAUA!ren 1.000. zenbakia ospatzeko, ekitaldia antolatu genuen uztailean, Aginagako Eliza Zahar-

"FINALERA ARTE HIRU HILABETE FALTA DIRA. ORAINTXE BERTAN IREKIA IKUSTEN DUT TXAPELKETA"

rean. Maialen Lujanbioren emaldiak borobildu zuen ospakizuna. Zer iruditu zitzaizun Maialenen saioa?

Hasteko, zorionak NOAUA!ri 1.000. zenbakira iristeagatik. Maialen asko maite dut eta asko estimatzen dut. Eta bereziki sormenetik bizirauten ari diren bertsolariak. Duela bi urte ere ikusi genuen Hernaniko Santa Barbaran, eta Aginagara etorriko zela jakin orduko, berehala eskuratu genituen sarrerak. Sorkuntza aldetik, ezberdina den formatu bat da eta guk asko disfrutatu genuen. Testuak lotu eta korapilatzeke Maialenek duen gaitasun hori izugarria iruditen zait. Esango nuke gutxi eskertzen diegula Maialeni eta Maialenen bezalakoei egiten duten ahalegina euskal sorkuntzak bizirik segida dezan, eta guk horretaz gozatzen segi dezagun.

Udarregiko Bertsolaritza Eskolaren oharra

Aurten ere, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH5, LH6, eta DBHko ikasleentzat.

Astelehenero batuko dira Udarregi erakinean, eguerdiko 13:30etik 14:30era.

Eskolak urrian hasi eta maiatzean amaituko dira.

Guraso talde baten ekimena denez, interesa duen edonork telefono zenbaki honetara deitu behar du: 608 768 539 (Josu). 65 eurokoa izango da urte osoko kuota.

Iaz bezala, Lierni Rekondo izango da bertso-irakaslea.



"Iturri askotatik edaten dugu eta musika anitza sortzen dugu", Tenpora taldekoek azaldu digutenez. ARGAZKIA: ANE&JOSE.

"Pop eta jazz estiloetatik abiatutako musika egiten dugu"

ELENE ARANDIA TENPORA TALDEKO KANTARIA

Hilaren 29an Tenpora talde tolosarrak kontzertua eskainiko du Sutegin 'Ama' diskoa aurkezteko. Arratsaldeko zazpitan izango da eta sarrerak usurbilkultura.eus atarian daude salgai 6 euroan.

"Ama" diskoa aurkeztuko duzue irailaren 29an Sutegin. Zer nolako musika eta doinuak entzuteko aukera izango da?

Laugarren diskoa da, laugarren geltokia. Geltoki honetan taldeak 10-11 urte bete ditu eta kontzertuetako abestiak aukeratzen hastean konturatu denboraren joanaz. Zenbat denbora edo zenbat tenpora pasatu diren ohartu ginen. Beraz, kontzertuetan ibilbide honetan sortu eta publikoari gehien gustatzen zaizkion abestiak jotzea erabaki genuen. Ez hori bakarrik, disko berriarekin ere elikatu ditugu kontzertuak. Beraz, alde batetik, disko berriko abestiak joko ditugu, eta bestetik, pu-

blikoari gehien gustatu zaizkion abestien artean egindako aukeraketa bat. Pop eta jazz estiloetatik abiatutako musika egiten dugu. Gaur egun zer ez da popa? Disko bakoitza beste genero batzuetara iristen da edo horiekin nahasten da. Ez zaigu gure musika sailkatzea gustatzen, nahiz eta badakigun gizartean dena etiketatze beharra dagoela. Momentuan momentukoa egiten dugu, eta islatzea gustatzen zaigu momentuan sentitu edo bizi duguna. Hori da Tenpora guretzat. Musikariak gara eta gure musika ere aldakorra da. Gu ere aldatuz goaz gure fobia eta filia guztiekin. Iturri

askotatik edaten dugu eta musika anitza sortzen dugu. Gozatzekoa.

2013an eman zenioten hasiera proiektuari eta lau disko atera dituzue ordutik. Azkena, "Ama" izenekoa urte hasieran. Nolako ari da izaten 11 urteko ibilbide hau?

"MUSIKA ALDAKORRA DA, GU ERE ALDATUZ GOAZELAKO GURE FOBIA ETA FILIA GUZTIEKIN"

Hasieratik argi geneukan epe luzerako proiektua izango zela. Tenpora sortu bazen, musikari denbora eta espazioa eskaintzeko izan zen. Bost musikaririk osatzen dugu taldea, eta gure taldekide Juantxo eta Asier beste proiektu askotan daude sartuta; Ruper Ordorika edo Benito Lertxundirekin, adibidez. Hamaika proiektutan sartuta egon dira, eta hala jarraitzen dute. Proiektu guztietan gauza bera gertatzen zaigu, ikuskizun eta abesti bat eskatzen digutenean enkargu baterako edo, beti sentitzen genuen denbora gutxi geneukala. Proiektua gozatzeko denborarik gabe sentitzen ginen. Juantxo izan zen denok elkartu gintuen pertsona, eta helburu horrek elkartu gintuen, batik bat: musika lasai eta denborarekin sortzeko asmo eta ilusio horrek. Hala sortu zen Tenpora, epe luzerako proiektu modura. Talde osoa islatzen duen proiektu bat da eta abeslariak protagonismo hori har badezake ere, denok dugu garrantzia taldean. Alderdi hori ere garrantzitsua da guretzat.

Urte hauetan Euskal Herriko probintzia guztiak bisitatzeko aukera izan duzue? Atzerrian izan zarete?

Gure helburua Bizkaian gehiago sartzea da. Ez da lurralde erraza kontzertuak lortzeko. Bizkaitarrek ere gauza bera diote Gipuzkoan kontzertuak emateari buruz. Azken finean, bakoitzak gertuko taldeak kontratatze ohitura du. Gipuzkoan asko ibili gara, baina Bizkaian bi edo hiru kontzertu egin ditugu. Araban eta Nafarroan ere izan gara. Iparraldean ere esango nuke ez garela izan. Beraz, bi lurralde horiek dauzkagu jorrazteko: Bizkaia eta Iparraldea. Atzerrian ez gara sekula izan. Proposamenen bat edo beste jaso izan dugu, baina datak zehaztea zaila da. Bost taldekide gara bakoitza bere betebeharrekin.



Lankidetzan bideratzen da egitasmo hau, Udalarekin batera tokian tokiko ikastetxe eta jubilatuek elkarrekin eskutik.

Astearteetako ibilaldi osasuntsuen itzulera

Udako etenaldiaren ondoren, buetan dator "Usurbil, goazen kalera" dinamika. Herritar orok parte hartu ahal du. Aste honetan egin dute ikasturteko lehen ibilaldi osasuntsua.

Aurreko udaberriaren eskaintza hau indarberritu ostean egin bezala, astearte goizero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuetan parte hartzeko aukera izango du edonork, herritar orok parte hartu dezake eta ekimen honekin.

Antolatzaileek momentuz, abendura arteko ibilaldi osasuntsuen egutegia aurkeztu dute. Astearte goizero egingo dira, 10:30-12:00 artean, Usurbilgo erdigunean bertan; Santuenean, Zubietan edota Aginagan. Txandakatuz, zonalde ezberdinetan egingo dituzte ibilaldi hauek; beti, tokian tokiko frontoian hasi eta amaituko dira.

Hamaiketako eta guzti

Paseo bakoitzaren bukaeran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiketako ederra dastatzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

Elkar zaintza eta komunitatea eraikitzea

Izan ere, lankidetzan bideratzen da egitasmo hau, Udalarekin batera tokian tokiko ikastetxe eta jubilatuek elkarrekin eskutik. Jatekoa, aipatu moduan, Atallun kokaturiko ikastetxeetako kideek prestatzen dute. Belaunaldiartekotasuna sustatzen du ekimenak; ikastetxeetako gazteak eta helduak batzen ditu eta asteroko hitzordu honek. Baina antolatzaileek nabarmendu bezala, herritar orori zuzendurikoa da eskaintza hau. Edonork parte hartu dezake, aurrez izena eman beharrik izan gabe.

"EDONORK HAR DEZAKE PARTE. EZ DA AURREZ IZENIK EMAN BEHAR"

Gainera, noizean behin, astearteroko paseoak ekintza bereziekin tartekatzen dituzte.

"Usurbil, goazen kalera"

Asteartero:

- Orduetgia: 10:30-12:00.
- Tokia: hasiera eta amaiera beti Usurbilgo herri edota auzoetako frontoietan.

Ibilaldi osasuntsuen egutegia:

- Irailak 17: Usurbilgo kaxkoan.
- Irailak 24: Aginagan.
- Urriak 1: Usurbilgo kaxkoan.
- Urriak 8: Santuenean.
- Urriak 15: Usurbilgo kaxkoan.
- Urriak 22: Zubietan.
- Urriak 29: Usurbilgo kaxkoan (ekintza berezia).
- Azaroak 5: Aginagan.
- Azaroak 12: Usurbilgo kaxkoan.
- Azaroak 19: Santuenean.
- Azaroak 26: Usurbilgo kaxkoan (ekintza berezia).
- Abenduak 10: Usurbilgo kaxkoan.
- Abenduak 17: Zubietan.

Elkarlanean:

Usurbilgo Udala; Oinarrizko Lanbide Heziketa; Gure Pakea, Gure Elkartea eta Arrate jubilatuek elkarrekin; eta Zubietan nahiz Aginagako eskolak eta Udaregi ikastola.

Oinarrizko Lehen Sorospen ikastaroa DYaren egoitzan

Irailaren 28an hasiko da, euskaraz eskainiko dute eta edonork eman dezake izena. DY Gipuzkoak aditzera eman duenez, 10 orduko iraupena izango du eta bi egunetan luzatuko da. Goizez batuko dira, 09:00etatik 14:00etara, Usurbilgo DYak Muna-Lurra, 26 helbidean duen egoitzan.

Ikastaro honetan, eguneroan topa genitzakeen arrikurik nagusienak landuko dira, eta hauei aurre egiteko teknikak erakutsiko dituzte: bihotz birika susperketa, zauriak, haustura, erredurak...

Plaza kopurua, mugatua

Matrikularen kostua 60 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearen.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira. DYaren web orrian ere eskura daiteke ikastaroari buruzko informazioa:

DYAgipuzkoa.com.

Urbilen ere ospatuko da Zinemaldia

Irailaren 20tik 28ra, Urbilgo zinema aretoek Euskal Zinema ziklo bat eskainiko dute.


Zinemaldiaren aurreko edizioetan 'Zinemira' sailean saritutako filmak ikus ahal izango dira.

- Irailak 20, 21: *Lubaki amai-gabea (La Trinchera Infinita)*.
- Irailak 22, 23, 24: *Maixabel*.
- Irailak 25, 26: *Ane*.
- Irailak 27, 28: *Sultanaren ametsa (El Sueño de la Sultana)*.

Film guztiak 19:30ean hasiko dira.


Bakoitzari berea

Ea asmatzen duzun zer jango duen euli bakoitzak.



ZU bai HAMALAU!

Azkar batean, goiko eta beheko irudien arteko aldeak aurkitu behar dituzu. 14 dira guztira.








DOMINOAN

Lauki zurietan falta diren irudiak marraztu, domino zati honek zentzua izan dezan.



Ospa!



























Armiarmak eulia harrapatu du sarean, baina oraindik ere badu aukera bat ihes egiteko. Lagundu euliarri zirrikituak aurkitzen eta saretik ateratzen.




Soluzioak 20. orrialdean.

Zeeer jii
















































HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esaera bat agertuko zaizu. Erabili hizki-marrazkien alfabetoa.



Margotu

Soluzioak 20. orrialdean.



Santueneko jaietan eskuratu ahaliko diren zapiak eta kamisetak.

"Auzoko bizitza berraktibatzea garrantzitsua da"

SANTUENEO JAI BATZORDEA TALDEKO ORDEZKARIAK

Santuenea ospakizun giroan murgilduko da asteburuan. Auzoa bizigarria dela erakutsi nahi dute jai batzordeko kideek, lerrootan NOAUA!ri adierazi diotenez.

Irailaren 20tik 22ra jai giroan murgilduko den Santueneaz mintzatu zaigu jai batzordea lerrootan.

Hasteko, izatez festen asteburuan noiz den irizpide zehatz bat baduzue?

Iaz, noiz ospatzen diren, horretaz hitz egiten aritu ginen. Iraileko hirugarren asteburuan zirela uste genuen, baina ez, iraileko azkenaurreko asteburuan izaten dira.

Asteburuko ekitaldien eskaintza eskuartean hartuta, zeintzuk dituzue nabarmentzeko artean? Batetik, gauak. Bi DJ gau izanongo ditugu. Hor egin dugu ahalgin handiena. Espero dugu

jendea erakarriko dutela. Horrekin batera, igande arratsaldetan emanaldi bat programatzen dugu urtero; aurten, Etxeberría aita-seme trikitilariak etorriko dira. Haiek ere jendea mugiaraziko dutela pentsatzen dugu.

Gazte belaunaldi berriaren artean, arrakasta itzela duen formula da DJ gauena ezta?

Egunetik egunera gehiago, bai. Festetan, gehien entzuten den musika emanaldietako bat DJ on batena da. Santueneko jaietan ere hala dela ikusi izan dugu. Iaz, argi geratu zen, nola bete zen plaza. Alkoholik gabe geratu ginen goizaldeko 3:00etan. Eromena izan zen. Bide horre-

tatik segi nahi izan dugu aurten. Ea egoera bera errepikatzen den.

Herritik kanpotik ere jendetza etorri zen.

Lasarte-Oriatik eta Antiguatik. Antiguako jendea normalean etortzen da. Aurten ere Lasar-

"HELBURUA ARGIA DA, AUZOA EGITEA ETA JENDEA SANTUENEAN BIZI DAITEKEELA JABETZEA"

retik jende dezente etortzea espero dugu.

Iaz gaez jendetza ibili zela diozue. Jendetsuak izan ziren eguneko hainbat une ere. Joera hau finkatzen ari da? Gaez baino festa giroa egunez gehiago bizitzeko ohitura nagusitzen ari da?

Batez ere familien aldetik. Familia giroa sumatzen dugu bereziki ostiral arratsaldeko txupinazo eta globo gerran edota baita igande arratsaldeen ere. Piper edota sardina janera ere animatzen da jendea. Polita da ere arratsaldean etortzea, festa giro ederra izaten da.

Zuen auzoko festa hauek zer egin-kizun betetzen dute Santueneko bizitzan? Zer ekarpen egiten diote auzoari?

Auzoa biltzen dute jaiak. Festak iristean, auzoa eta herria, Usurbil ere biltzen da eta hori pozgarria da. Pozgarria da ikustea Santueneak bizirik segitzen duela. Azkenean, auzoa ez da lehen zena zentzu horretan. Lehen denak elkar ezagutzen ginen. Taberna piloa zegoen eta jendea gora eta behera ibiltzen zen. Orain pixka bat hori dena galdu da. Gu saiatzen garena da hona bizitzera datorrena, animatzea auzoko festetan murgiltzera, ikusaraztea Santuenean bizitza egin daitekeela, jende interesgarria bizi dela bertan. Testuinguru horretan, zapiak atera ditugu eta zapiotako leloa "auzoa egin" da. Helburua argia da, auzoa egitea sustatzea eta jendea Santuenean bizitza daitekeela jabetzea.

Auzoak izan duen bilakaera aipatu duzue. Nola ikusten duzue gaur egungo Santuenea?

Auzoko jendea joaten hasi da, gure adineko gutxiago daude. Auzo bizitza hori mantentzea edo berraktibatzea guretzako, auzokideontzako garrantzitsua da. Geroz eta jende gehiago prest izatea jai batzordean, baita festetan parte hartzeko ere guretzat garrantzitsua da.

→ Zertan da jai batzordea? Erreleboa gertatzen ari da beste zenbait bilguneetan.

Erreleboa beti behar da, jai batzordeko kideek ez dute eta betirako segiko batzordean. Oso larri egon ginen, juxtu pandemia eta gero. Lau kide geratu ginen, oso gaizki pasa genuen, ez genekien zer gertatuko zen jaiekin. Elkar animatuz, azkenean jendea erakarri eta festak mantentzea lortu dugu. Festak osasuntsu daudela uste dugu, urte batzuetan jarraitu ahal izateko bai behintzat. Egun, jende nahiko dago auzokoa, ahal duena segi aurrekoek egindako lan guztiarekin. Urtero-urtero gazte gehiago animatzen dira, ez direnak Santueneakoak baina beti garrantzitsua iruditzen zaigu batzordekoa izateko auzoarekin zerikusia, nolabaiteko loturaren bat izatea. Animatuak gaude eta esperantzaz dago festak mantendu eta jaiari jarraipena emateko. Guk aurrekoetaz ikasi, haiek transmitutakoa jaso eta ea berdin edo hobeto egin ahal dugun.

Azken urteotako jaiak jendetsuagoak izan dira ezta?

Pandemia aurretik beherakada handia izan zen. Pandemia ostean, gehienbat gazteak dira gauetan ikusten direnak. Jendea arratsaldeetan jaisten da txarangarekin. Jendea gustura dago eta guretzat pozgarria da.

Festa hauetarako gonbita nori eta zergatik egin nahi diozue?

Jende guztiari orokorrean. Inguruotako jaien denboraldiko azken aurreko festak dira. Jendea eskolan edota lanean hasi berritan, festa giroa nahiko du eta aprobeitza dezala aukera hau, hemen egongo gara gu. Azkenean uste dugu festak denontzat direla, bai txiki, gazte zein helduentzat. Gure asmoa hori da, festen egitaraua orokorra izatea, guztiontzat: jaietan hainbat une izango dira umeentzako ekintza ezberdinekin, helduentzako trikitalari, bazkari, piper edo sardin



Auzokideak jaietako globo gerrarako prestaketa lanetan.

janak programatu ditugu, gazte eta helduentzako gauak. Guretzat hori da garrantzitsua, lehen esandakoa, festa giroa egun osoan izatea, gau eta egun.

Jai batzordeak nola uztartzen du festetan lan egitea eta festez gozatzea?

Beti egin izan da. Txoznan egotea beti polita izaten da festetan. Aldez aurreko lana pixka bat gogorragoa izaten da. Txoznan egotea beti polita da, ondo pasatzen da.

Ez kutuko lan handia dago jai egunen aurretik eta festen ostean. Noiz hasi eta noiz bukatzen da antolakuntza lan guztia? Zer bide egiten duzue ez kutuko lan horretan?

Festak bukatu berritan jaien balantzea egiten dugu. Ikusten dugu zer atera den ondo, zer gaizki. Gerora, hurrengo jaien prestaketa lanak aurreratzen

"GURETZAT HORI DA GARRANTZITSUA, FESTA GIROA EGUN OSOAN IZATEA, GAU ETA EGUN"

hasten gara, jende berri batekin hitz egiten, aurreko festetan gaizki ateratakoa aldatzen, tradizionalak diren ekitaldiei segida ematen. Gauza onak mantentzen saiatu eta berriak probatzen joaten gara. Aurten, adibidez, tortilla lehiaketa, bi urtetan egindakoa, eta balkoi apaintze lehiaketa kendu ditugu. Parte hartze gutxi izan zuten iaz.

Aldez, globo gerra eta auzo bazkaria dira ekitaldi jendetsuena batzuk, auzotarren bilgune direnak.

Piper eta sardina janak baita. Jendea hitzorduotara animatzen da. Lehen, afaria eta bazkaria egiten ziren. Baina bazkariarekin bakarrik geratu ginen azkenean. Garrantzitsua da, azkenean, auzoa egitea eta hori mantentzea. Jaietara animatzea ez bakarrik betidanik bertan bizi direnak, Santueneara bi-

"ALDEZ AURREKO LANA GOGORRAGO DA. TXOZNAN EGOTEA POLITA DA, ONDO PASATZEN DA"

zitzera datozenak ere animatzea eta kalera jaistea, bizitza hemen egin nahi izatea. Santuenea ez izatea lo egiteko auzune bat. Hemen ahal da bizitza egin; bi taberna ditugu, denda dugu, sagardotegia dago, soziedatea, kultur elkartea...

Amaitzeko, erakutsi dizkiguzuen jaietako kamisetari eta zapiei buruz zer adierazi nahi duzue?

Kamisetak atera ditugu asfaltiko partez. Baziren hamar urte edo gehiago halakorik ez genuela egiten, jendea gogotsu zen. Espero dugu jendeak erostea, 8 eurotan egongo dira salgai txoznan edota aldez aurretik, festak baino bi egun lehenago ere bai. Zapiak ere eskuragarri jarriko ditugu, laugarren urtez. 3 eurotan izango ditugu salgai. Kamiseta edota zapia jantzita, jendea anima dadila gurekin, festekin bat egin edo murgiltzera. Bide batez, eskerrak eman nahi genizkieke laguntzaile guztiei; batez ere, Ibai Ondo elkarteari edota Santuenea Kultur Elkarteko gurasoei, umeen ekimenak antolatzeagatik. Gazteak anima daitezela, auzokideak etor daitezela. Nahi duen oro etorri eta jai batzordeko esku zabalik hartuko ditugu.



Jon Alkorta eta Jon Mikel Larrañaga, igandean Santueneko azken festen eguna esnatuko duten bi herrikide musikariak.

"Gure kabuz hasi ginen, euskal tradizioa auzoan ikusarazteko"

JON&JON ESNADIAKO MUSIKARIAK

Galbidean den ohiturari eusten dihardute Jon Mikel Larrañagak eta Jon Alkortak. Festa girora plazaratzeko gonbita egingo deite santueneareki, azken urteon antzera, igandeko esnadeian. "Usurbilgo auzo bakarrenetakoa izango da esnadeia duena", adierazi digutenez.

Igande goizeko 9:00etan jaie-tako azken eguna esnatzera irtengo dira lerrootako bi protagonistak.

Zer plan duzue irailaren 22ko goiz horretan Santuenean?

Jon Alkorta: Urtero egiten dugun moduan, igandean esnadeia joko dugu Santueneko festetan bakarrik. Beste auzoetan ez dugu jotzen, ekitaldi bereziren batean ez bada.

Zenbat urte daramazue?

Jon Mikel Larrañaga: Auzokoa naizenez, ideia hori bururatu zitzaidan. Gure ekimenez hasi ginen, euskal tradizioa pixka bat auzoan ikusarazteko. Duela bi urte jaien egitarauan

sartu gintuzten. Goizeko 9:00etan elkartzen gara eta auzoan zehar ordubeteko itzulia egiten dugu.

J.A.: Gero, hamaiketako Ibai Ondo-n, hori derrigorrezkoa da.

Nola bizi duzue festen esnatzen une hori? Biok bakarrik egingo duzue bira hori noski?

J.A.: Oso jende gutxi topatzen dugu kalean, batzuk esnatuko ditugu, beste batzuk esna egoten dira. Gutxigatik ez dugu kointziditzen gaupaseroekin.

J.M.L.: Balkoietara ateratzen zaizkigu eta eskertzen dute.

J.A.: Eskertzen dute, urte askotan egon baitira txistularirik gabe.

Bakarrik joateak musika lasaigo plazaratzeko aukera ematen du?

J.A.: Uste dugu egin behar dugun gauza bat dela. Bi bakarrik gara, ez gara txistulari talde handi bat. Gu pozik ibiltzen gara, gustura.

J.M.L.: Bakarrik oso gustura joaten naiz. Amateurrak gara,

"OMENALDIETAN ESPEZIALIZATU GARA. AURREKUJOLARIAK GARELA ESATEN DUGU"

ez dugu inongo bikaintasunik bilatzen, besterik gabe, auzoa alaitzea. Usurbilgo auzo bakarrenetakoa izango da esnadeia duena. Tradizioari jarraitzea emateak harrotasun pixka bat ematen du. Garai batean, esnadeiak izaten ziren herri guztietan, txistuak protagonismo gehiago izaten zuen festetan. Txistuari protagonismo pixka bat ematea ere gustura hartzen dugu.

Nola bideratzen duzue musika instrumentuen banaketa?

J.A.: Biok jotzen dugu, nik danbolina eta txistua batera, Jonek txistua. Askotan bigarren ahotsa egiten du, nik lehenengoa.

Musika instrumentu horiekin noiz hasi zineten harremantzen?

J.A.: Ni hamar urterekin hasi nintzen Donostiako Kontserbatorioan, txistua ikasten. Gero, laster hasi nintzen jotzen Antiguako txistulari taldearekin eta Egiako Aitor ikastolako txistulari taldean ere. Jotzen genuen kalean, auzoko festetan Donostian. Gero, urte asko egon naiz jo gabe eta duela 16 urte edo elkartu nintzen Jonekin eta Usurbilen hainbat ekitaldietan parte hartu izan dugu.

J.M.L.: Omenaldietan espezializatu gara. *Aurrekujolariak* garelako diogu, txistulariak baino. Ez nago eskolatua musikan. OHOn ikasi nuen txistuarekin eta gero Zarauzko Arrano elkartearen txistulari bandan trebatu nintzen. Gero Jonek irakatsi dizkit gauza asko.

Herriko hainbat ekitaldietan parte hartu izan duzue. Une berezi baten baino gehiagoren lekukoak izango zineten?

J.M.L.: Normalean jo izan dugu Ezker Abertzalearen ekitaldietan baina baita beste omenaldi batzuetan ere, urrezko eztei batzuetan, Usurbil 1936 elkar-tearen ekitaldietan, ongi etorrietan...

J.A.: Kalejira ezagunak jotzen ditugu.

→ **Bakoitzak zuen kontutik entsegatzen duzue?**

J.A.: Normalean emanaldi eguna baino lehen entsegu pare bat egiten ditugu. Baina jotzen ditugun piezak aurretik ezagunak dira.

J.M.L.: Aspalditik sortutako kantuen koadernotxo bat dugu.

Santueneko kalejira bezalako ekitaldietara mugatzen da musikarekin duzuen hartueman edo urtean zehar bestelako loturarik baduzue?

J.A.: Musikarekin lotura gutxi, etxean entseatu edo ekitaldiren batean jotzean soilik. Beste instrumentu batzuk saltseazten ibiltzen gara ere, kitarra-rekin adibidez.

J.M.L.: Iaz, ukelelea jotzeko ikastaroan apuntatu nintzen. Solfeo urte bat ere egin nuen Zumarten.

Musikak zer eman dizue orain arteko ibilbidean?

J.A.: Musika niretzat ezin bestekoa da bizitzan, beti musika entzuten nabil. Musika beharrezkoa da niretzat eta txistua bereziki euskal kulturaren sartuta dago betidanik eta horrek ere ematen digu beste poz bat, instrumentu hau jotzeko.

J.M.L.: Niri lagun bat ekarri dit. Elkar ezagutu ginen ome-



Festa giroa alaitzeko hitzordu ugari izango da asteburuan Santuenean.

naldi batean, bertan parte hartzeko deitu zigituean. Lasaitu ederra hartu nuen, bakarrik jotzeak estura pixka bat ematen zidan. Jon bezalako jakitun bat ondoan izateak asko lasaitzen nau. Lagun bat ekartzeaz gain, gozagarria da musika.

Mugimenduan eta etenik gabe instrumentuak jotzen ariko za-

"TXISTUA JOTZEKO OINEZ ZOAZELA BIRIKA ONAK BEHAR DIRA. HORI EMANALDI UNEAN NABARI DA"

rete esnadeian. Erresistentzia berezia behar al da halako uneetan?

J.A.: Txistua jotzeko kalean eta oinez zoazela, birika onak behar dira eta emanaldi unean nabari da. Geldirik edo oinez jotzea ez da berdina.

Esan duzuen moduan, auzo bakarretakoa da Santuenea jaietako esnadeiari eusten diona.

"GARAI BATEKOA EZAGUTARAZI ETA BERPIZTEAK HARROTASUN PUNTUA EMATEN DU"

Iraganean ohikoak ziren. Nola bizi duzue gainbehera hau?

J.A.: Orain, txistulari gutxi dago gazteen artean. Nahiago dute kitarra elektrikoa jo adibidez, normala iruditzen zait. Garai batean txistulari gazte gehiago zeudela iruditzen zait. Festa guztietan jotzen zen eta esnadeia ere auzo guztietan ospatzen zela esango nuke. Gehiago jotzen zen talde handietan.

J.M.L.: Txikitako Usurbilgo jaietako esnadeia dut gogoan. Amaren etxea zena herri erdigunean zegoen. Handik entzuten nuen. Txistulariak ere buruhandiek ingoratzten ditut. Garai batean protagonismo askoz handiagoa zuten festetan. Gaztetxo eta helduen artean, talde jendetsua izaten zen. Egun, 18 urte daramat Udarregi ikastolan lanean. Txistua ikasi duen ikasle bakar batez oroitzen naiz soilik.

Zuen kasuan segitzeko asmotan?

J.A.: Guk jarraitzeko asmoa dugu osasuntsu garen artean eta jendea ez bada asko kexatzen.

J.M.L.: Bai, noski. Jaien egitarauan egonda, arrazoi gehiagorekin segiko dugu. Garai bateko ohitura ezagutarazi eta ohitura hori berpizteak harrotasun puntua ematen du.

Santueneko jaiak 2024

Irailak 20, ostirala

- 16:00 Ur jolasak.
- 17:00 Txupinazoa.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:00 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
- 18:30 Burrunbazale txaranga, poteoa. Buruhandiak.
- 21:00 Auzotarren afaria. "Ekarri afaria eta sagardoa gure kontu".
- 23:00 Dj Lila. "Ondoren, txoznan jarraituko dugu festa goizaldera arte".

Irailak 21, larunbata

- 10:00 Puzgarriak.
- 12:30 Buruhandiak.
- 14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
- 16:00 Mus txapelketa (izen-ematea: 15:30-16:00).
- 16:00 Apar festa.
- 17:30 Txokolatada Tragoxkan.
- 18:00 Burrunbazale txaranga eta buruhandiak.

- 19:00 Sardin-jana.
- 21:00 DJ Lila.
- 00:00 Dj Gaua: Dj Fantasia, Hazas Ft Jagoba, Chuchamba.

Irailak 22, igandea

- 09:00 Esnadeia Jon&Jon.
- 11:00 Umeen tailerrak.
- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txosnan.
- 12:00 Zanpantzarren irteera.

- 14:00 Auzo bazkaria. Ondoren, bingoa. (Menua: entsalada, oilasko errea, postrea eta edaria. Tiketak Zaharren Egoitzan, Tragoxkan eta Artzabalen jarri dira salgai).
- 18:00 Buruhandiak.
- 18:30 Etxebarria aita- seme trikitilariak.
- 19:00 Piper dastaketa.
- 20:45 Sarien banaketa.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.



Aurreko astean Txokoalden izan ziren hainbat udal ordezkari.

Altzonazko zubia birgaitzeko zazpi hilabete beharko dira

Txokoaldeko zubia birgaitzeko lanek auzoan izan dezaketen eragina ahalik eta gehien murrizteko bilera egin zuten aurreko astean Txokoargin.

Oraindik ez dago argi noiz hasiko dituzten lanak, baina une hori hurbiltzen ari den honetan, azken urteotako lan-

kidetzari segida emateko urrats berriak ematen ari dira Txokoalden, Udala eta bertako bizilagunak. Gogoan izan,

Aginagako trenbidea bikoiztu eta tunela eraikiko dute. Lanok esleitu dituela jakinarazi zuen Euskal Trenbide Sareak irailaren 5ean.

Inkesta bat martxan

Lanok bideratu aurretik ordea, ETS-k eta Usurbilgo Udalak adostua duten hitzarmenaren baitan, Txokoaldeko zubia birgaitu beharko dute. Lanok ahalik eta eragin txikiena izateko bi deialdi plazaratu ditu Udalak egunotan; batetik, albiste honi atxikitako irudietan duzuen bilkura, irailaren

12an Txokoargi auzo elkartearen egoitzan egin zutena. Horrekin batera, galdetegi bat ere martxan jartzekoak dira. Udalak egunotan auzoan etxez etxe banatuko duen inkesta bat da. Inkesta horren erantzunak irailaren 25era arte utzi ahaliko dira Erroizpen edota Txokoargin jarriko dituzten postontzietan.

Zubia ia erabat eraitsiko dute

Gogoan izan, zubia berritzeko lanen bidez, "zutabeak izan ezik, zubia erabat eraitsiko dute, eta horrek ezinbestean baldintzatuko ditu auzotarren eguneroko joan-etorriak", ohartarazia du Udalak.

Zubia birgaitu ostean, "oinezko, txirrindulari zein ibilgailu motordunentzat balio-garria izango da, eta 30cm igoko dute. Aurreikuspenen arabera, zazpi hilabete beharko dituzte horretarako", Udalaren esanetan.

ZUBIAREN BERRITZE-LANEK AUZOTARREN JOAN-ETORRIAN ERAGINGO DUTE

Ezkeltzuko parke eolikoa, arriskuan

Andatzan eraiki asmo duten parke eolikoaren proiektua arriskuan egon daiteke, aire-nabigazioan izan dezakeen eraginagatik.

Green Capital enpresak parke eoliko bat eraiki nahi du Andatzaz bestalde, Ezkeltzun, bereziki Zizurkilgo baina baita Usurbilgo lurretan ere. "Ia 200 metroko altuerako errota erraldoiak eta errepide zabalak jasotzen ditu proiektuak", Andatza-Ezkeltzu Bizirik! herri plataformak aditzera eman izan duenez. Galera oso larri-

tzat jo zuten iazko ekainean eremura antolaturiko txangoan parke eolikoak bertako inguruko ondare natural eta kultural aberatsean eragin dezakeen kaltea.

Lurrean soilik ez. Airean ere eragin dezakeen arriskuaz ohartarazi du Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziak. Bere oniritzia behar du proiektuak,



Ezkeltzu Andatzan dago, Zizurkilgo eremuan nagusiki.

gaurkoz ez duena. Testuinguru horretan, EHBilduk Eusko Legebiltzarrean gai honi buruz eginiko galdera baten harira jakin ahal izan denez, enpresak beharrezkoa duen Aurretiazko Administrazio Baimena

eta Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenari lotutako tramitazioarekin aurrera jarraitzen ez badu, espediente iraungitza joko du. Ez dago argi, ordea, hori noiz gerta daitekeen.



Irailako kirol hitzordu garrantzitsuena zen Baxurde Krosa. ARGAZKIA: NOAUA

Aurtengoan ez da Baxurde Krosik ospatuko

Ez dute proba antolatze behar beste laguntza bildu. Azken urteotako edizioetan gainera, asko jaitsi zen kirolari kopurua.

Iraila heltzearekin batera, lasterkarien bilgunean bilakatu izan da urte luzez Usurbil, Baxurde Krosari esker. Hala izan da, 2008. urtetik. Soilik Covid19ak eragindako osasun krisialdiak etenarazi zuen herri lasterketa hau bi urtez, 2020 eta 2021 urteetan. 2022an itzuli zen, ohi baino hilabete geroago, urrian. Iaz, irailaren 17an ospatu zen azkenekoz. Hamalau garren edizio huraxe izango da, momentuz azkenekoa.

Antolatzailen esanetan, aurtentzen ezin izan dute behar beste laguntza bildu proba honen hamabosgarren edizio hau bideratzeko. Horrekin batera, parte hartzaile kopurua nabarmen murriztu da azken edizio hauetan. Gogorarazi dutenez, edizio jendetsuenean 450 lasterkari erakartzera heldu ziren, iaz ehunera ere ez zen heldu parte hartzaile kopurua; haie-

tatik, gainera 24 baino ez ziren izan herrikideak, 8 emakume eta 16 gizonezko. Gaineratu dutenez, orohar lasterketa hauek ere ez dute garai bateko babes gaur egun.

Auzolanari esker

Testuinguru honetan, aipatu moduan, aurtengoz Baxurde Krosa ez antolatzea erabaki dute. Egutegiari begiratu gero, pasa den igandean, irailaren 15ean jokatu zen hamabosgarren edizioa, aurreko urteetako ohiturari eutsiz gero. Aipatu moduan, ordea, ez da kros herrikoi hau ospatuko.

"LASTERKETA HAU EK DUTE GARAI BATEKO BABESA"

Baxurde Txiki Triatloi Taldekoen hitzordu honek Usurbilgo herri eta auzo hainbat lotu izan ditu proba honen bueltan; urtez urte, hainbat partaideek zeharkatu ahal izan dituzten Kaxko inguruko bideak landa eremuokoin. Horrez gain, eskuzabalik hartu izan dute parte hartzaileek antolakuntzaren eskutik jasotako sari, oroigarri eta zozketa bidezko oparien eskaintza zabala, herriko hainbat saltoki, norbanako eta eragileen bidez eskuraturikoak.

Belaunaldiartekotasuna ere sustatu izan du Baxurde Krosak. Alde batetik, distantzia ezberdinetako helduen bi lasterketa antolatu izan dituzte; baita belaunaldi gazteenari, haur eta gaztetxoek zuzenduriko lasterketak ere. Batzuekin zein besteekin giro ederra sustatu izan du proba herrikoi honek urtero uda amaieran. Guztia, noski, auzolanean jardun duen herri-talde eskuzabalarari esker.

Aldaketarik ezean, beste bi proba herrikoi geratuko dira Usurbilgo kirol hitzorduen egutegian; batetik, urtarileko azken igandean egin ohi den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen, eta, bestetik, ekaina erdialde-ara antolatu ohi duten Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioa.

Lasarteko lasterketarako izen-ematea zabalik

Urriaren 27an jokatu da Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia. Izen-ematea zabalik da honez gero.

Lasarte-Oriako kaleak zeharkatzeaz gain, aurreko edizioetan gertatu bezalaxe, Zubietatik ere igaroko da proba hau. Bugatit hasita, hipodromo paretik barrena Zubieta erdigunea zeharkatzen du urtero ekimen honek. Aliriko zubitik Txikierrira jo eta handik berriz Michelinetik barrena Lasarte-Orian barneratzen da berriz. Horregatik, proba honen antolakuntzan, laguntzaile gisa ageri da Zubietako Herri Batzarra, Oriarte BHI Usurbilgo eta Lasarteko institutuarekin batera.

Aurreko urteetan hainbat herrikideek parte hartu izan dute hitzordu honetan; iaz esaterako 40 lagunek. Aurtengoan ere, korrika edo patinekin (10 kilometro) parte hartu edota ipar martxarekin (5 kilometro) bat egiteko aukera izango da. Izena kronoak.com atarian eman daiteke.



Izena kronoak.com atarian eman daiteke. ARGAZKIA: TXINTXARRI.

Iñaki Errasti, beste urtebetez Ondarroan

Aginagakoak Ondarroako gizonen taldea zuzentzen segiko du hurrengo denboraldian, Eusko Label Ligan. Hala jakinarazi du udalerriri horretako arraun elkarteak, aurtengo ekinaldia amaitzean dute honetan. 2018. urteaz geroztik aritu da Iñaki Errasti Ondarroa zuzentzen baita talde berean arraunlari gisa lehiatzen ere.



Joskintza tailerra antolatu dute Santuenean. Urriaren 4an hasiko da. ARGAZKIA: UNSPLASH

Ikastaro eskaintza zabala, herriko elkarteen eskutik

Tailer eta ikastaro batzuk martxan dira. Gehienetan ordea, izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. Dantza ikastaroa, joskintza, aeroyoga, taichi, biodantza, etxeko muztioa egiteko tailerra, euskara ikasi edo hobetzeko aukera... Ikasturte honetako eskaintza oparoaren adierazgarri dira.

Dantza saioak Gure Pakearekin
Dantza ikastaroa antolatu dute urritik aurrera. Asteartero eta ostegunero izango dira saioak, 16:00-17:00 artean. Herritar orok parte hartu ahalko du. Antolatzaileek zehaztu dutenez, astearteetan sevillanak ikasteko aukera izango da eta ostegunetan aretoko dantzak eta dantza latinoak.

Izena emateko deitu hilabete honetan, 655 731 915 telefono zenbakira.

Taichi ikastaroa Santuenean
Auzoko Gure Elkartea jubilatuen elkartetik Taichi ikastaroa antolatu dutela berri eman dute. Saioak urriaren 7an hasiko dituzte eta astelehe-

nero izango dira, 17:00-18:00 artean.

Izen-emateko deitu telefono zenbakiotako batera: 675 006 445 (Maribi) edo 645 720 692 (Rosarito).

Joskintza eta aeroyoga, Santuenea KE-ren eskutik

Joskintza:

Ostiraletan, 17:00-19:00 artean. Aurkezpena irailaren 27an eta saioak urriaren 4an hasiko dira. Irakaslea: Mari Carmen (695 774 951).

Aeroyoga:

Aeroyoga saioak irailaren 16an hastekoak ziren. Informazio gehiagorako: Leire (615 715 991).

Oharra: Santuenea Kultur Elkarteko bazkide ez denak ikasturteko 10 euro ordaindu behar ditu ikastaro hauetakoren batean parte hartzeagatik, bazkide lagun moduan. Honek instalakuntzak erabiltzeko eskubidea emango dio eta ez du bestelako betebeharririk izango bazkide lagunak.

"GURE PAKEAK DANTZA IKASTAROA ANTOLATU DU. ASTEAN BITAN ELKARTUKO DIRA"

Usurbilgo Emakumeon Etxea

Kalezarko Pelaiorenean kokaturiko Emakumeon Etxetik Jabetza Eskolako datozen hilabeteotarako eskaintza plazaratu dute. Bi ikastaro antolatu dituzte:

Zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa:

Urriaren 3tik abenduaren 19ra (ostegunetan), 17:00-19:00 artean. Eneritz Gallastegik zuzenduriko ikastaroa elebiduna izango da. "Emakumeok, bizitzan zehar, gure zoru pelbikoan eta gure ongizatean eragina duten hainbat egoera bizi ditugu: erditzea, hormona gorabeherak, lanean jardutea, kirola praktikatzeara... Garrantzitsua da gure horretako muskulazioa prestatzea. Ikastaro honek osasunarentzat hain garrantzitsua den arlo hau sentitzen, ulertzen eta hobetzen lagunduko digu".

Biodantza:

Urriaren 1etik urtarrilaren 28ra (astearteetan), 15:30-17:00 artean. Euskaraz bideratuko ditu saioak Eider Zurriarrainek. "Biodantza musika, mugimendua eta emozioa uztartzen dituen jakintza bat da. Modu honetan, bakoitzak bere pentsamendu, sentimendu eta ekintzen kontzientzia hartzen du. Tratu onak ematen dira norberarentzat, besteentzat eta inguruan ere. Besteekiko enpatia garatzen da, eta afektuan oinarritutako harremanak sortzen dira. Autoestimua hobetzen da, eta maitatzeko gaitasuna handitzen laguntzen du. Adin guztietako emakumeei zuzendua dago, eta ez da aurretik dantza egiteko esperientziarik behar".

Emakumeon Etxeko ikastaro hauetan izena emateko aukera izango da irailaren 16tik 27ra Emakumeon Etxean bertan edo bideotatik: 943 377 112 telefono zenbakian edo emakumeonetxea@usurbil.eus helbidean.

Euskara ikasteko ikastaroen eskaintza

Ikasturte berrirako matrikulatzeko epea zabaldu du Etu-meta AEK euskaltegiak. Ohi bezala, euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autotokaskuntza... eskaintza zabaldua aurten ere urritik aurrera. Horien artean Udalarekin lankidetzan antolaturiko ikastarook:

Etorri berrientzako doako hastapen ikastaroa:

Astearteetan, 18:15-19:45 artean Potxoenean. Izen-ematea euskara@usurbil.eus atarian edo 943 371 999 telefono zenbakian.

Jubilatuentzako doako oinarritzako euskara ikastaroa:

Ostegunetan, 18:15-19:45 artean Artzabalen. Izen ematea: 10:00-12:00 artean Artzabalen edo 943 371 999 telefono zenbakian.

Izena bideotatik eman ahal da, argibide gehiago jasotzearekin batera:

- 607 609 379
- usurbil@ae.eus
- ae.eus
- blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae

Euskara errefortzuko klaseak

Eskolaz kanpo, euskara barneratu eta sendotzeko doako errefortzu klaseak eskainiko ditu ikasturte honetan ere Usurbilgo Udalak hiru ikastetxeekin batera (Udarregi ikastolak eta Aginaga zein Zubietako eskolek) behar baino maila apalagoa duten 6-16 artekoentzat. Zerbitzu hau Ttakun Kultur Elkar-teak eskainiko du urritik aurrera. Izen-ematea zabalik dute interesdunek irailaren 20ra arte, bideotatik: zerbitzuak@ttakun.



Etxeko sagar muztioa egiteko tailerra antolatu du Alkartasuna kooperatibak.

eus / 650 45 93 54. Egitasmo honen sustatzaileen esanetan, bospasei talde sortzeko beharra egon daiteke. "Eskolaz kanpo euskara barneratu eta sendotzeko beste espazio bat ematea izan da saioen muina". Sendotze lan hau bideratzen dute astero egiten dituzten ordu eta erdiko bi saioetan, "ahozkotatzen eta jolasa oinarri hartuta". Iaz bezala, "ikastetxeek identifikatuko dituzte saiook balio-garri izango zaizkien ikasleak, eta parte hartzera gonbidatuko dituzte. Horrez gain, herriko ikastetxeetan eskolatuta ez daudenek ere parte hartu ahal izango dute, betiere mailaketa-probaren baitan".

Esperientzia Eskola eta oroimen tailerra

Udaleko gizarte zerbitzuek Matia Institutuarekin lankidetzan antolaturiko Esperientzia Eskola 55 urtetik gorakoei zuzendua dago. "Lan mundutik erretiroa hartu eta ikasteko grina duen orok eman dezake

izena", Udaletik azaldu dute-nez. Astearteetan izango dira saioak, 16:00-18:00 artean. Bestalde, oroimen tailerra ere antolatu dute Udalak eta Lahar elkargoak, memoria landu nahi duten adineko pertsonentzat. Ikastaro hauetan irailaren 25era arte eman ahal da izena gizarte zerbitzuetan (astelehenero ostiralera 9:00-14:00 artean asteazkenean ezik edo 943 377 110 telefono zenbakian).

Sagarrondotik Sagardora

Bi ikastaro antolatu ditu irailarako Alkartasuna Usurbilgo baserriarren kooperatibak:

"EUSKARA ERREFORTZUKO KLASEAK ANTOLATU DIRA 6-16 URTEKOEN ARTEAN"

Etxeko sagar muztioa egiteko tailerra:

- Irailak 21, 11:00 Atalluko kooperatiba atarian.

Etxeko sagardoa egiteko ikastaroa eta egurrezko ontzien erabilera sagardogintzan

- Irailak 28, 10:30-12:30 Aginagako Eliza Zaharra elkargunean. Bertan, gainera, etxeko sagardoen dastaketa gidatua iragarri dute.

Hitzordu hauetarako izena aurrez eman ahal da, doan, Alkartasuna kooperatiban, 943 361 114 telefono zenbakian edo alkartasuna.eus web orrian.

Kantu Taldea

Irailaren 28an itzuliko da Usurbilgo Euskal Kantu Taldea plazara, kantu-jiraren bidez. 12:00etan abiatuko dute bira Mikel Laboa plazatik. Aurrez, ordea, asteleheneroko entsegu saioak berreskuratuko dituzte, 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxadaren estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 · eguneko menua · asteburuko menua
 · oilasko erreak, ogitartekoak, raziok..
 paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Badatoz Aginagako jaiak

Asteburuko festen ondotik helduko dira urteko azkenak, Aginagakoak. Urriaren 4tik 12ra ospatuko dituzte aurten-go San Praixkuak.

Nabarmentzeko ekitaldien artean, iaz arrakasta handia izandako Erriorearen Eguna iragarri dute jaien amaierarako. Urriaren 12 horretan, Oria jaien erdigunean kokatuko duen ospakizun horren baitan, gainera, trainerila txapelketa antolatuko dute.



Urriaren 4an hasi eta 12ra arte luzatuko dira San Praixku jaiak. ARGAZKIA: NOAUA

Otorduetarako txartelak nola eskuratu

Festen egitarauari buruzko xehetasun gehiago datorren aldizkarian emango dizkizuegun arren, bi otorduetarako lekua aurrez erreserbatu beharko dela kontuan izan.

Batetik, herri afaria egingo dute urriaren 5ean 21:00etan frontoian. Sarrerak Arraten erosi ahaliko dira aurretik; 30 eurotan helduen otordukoak eta haurrenak 12 eurotan. Egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira,

baina kasu horretan 40 eurotan.

Bestetik, gazte afaria iragarri dute baita urriaren 11n Atarialde Elkartean. Izena urriaren 4a baino lehen bideratu beharko da Instagramen.

Iban Zaldua, uda osteko lehen literatura solasaldian

Aldiro antolatu ohi dituzten literatura solasaldien denboraldi berria abiaraztera doa Sutegi udal liburutegia. Lehen saioaren data finkatu dute; urriaren 23rako 19:00etan. Ahotan hartuko duten sorkuntza lana ere zehaztu dute zein izango den; Iban Zalduaren "A Escondidas" izango da. Sorkuntza lan horren egilea bera Sutegin izango dela aurreratu dute.

Ana Merinok gidatuko du solasaldia

Erdaraz bideratuko du saioa Ana Merino herrikideak. Sutegitik ohartarazi dutenez, "liburuaren zenbait ale eskuragarri ditugu etorri nahi duenarentzat".

Bakoitzari berea
Ea asmatzen duzun zer jango duen euli bakoitzak.

Zu bai Hamalau!
Azkar batean, goiko eta beheko irudien arteko aldeak aurkitu behar dituzu. 14 dira guztira.

DOMINOAN
Lauki zurietan falta diren irudiak marraztu, domino zati honek zentzua izan dezan.

Ospa! Armiarimak eulia harrapatu du sarean, baina oraindik ere badu aukera bat ihes egiteko. Lagundu euliori zirrikituak aurkitzen eta saretik ateratzen.

Zeeerpil!

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esaera bat agertuko zaizu. Erabili hizki-marrazkien alfabetoa.

Margotu

ASKORI EULIAK
BESTEEN
BUZTANAREKIN
KENTZEA GUSTATZEN

'Plazan Bazan' 10-11 orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta beza-la erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUI:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647742588

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Aginaga sagardotegian txotx garaietan larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduak zaintzen, garbiketarak egiten izan elkarte zein etxe partikularretan, lan bila nabil. Espe-rientzia daukat 631 654 743.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Astean zehar klase partikularrik emateko prest nago, LH zein DBHko ikasleei, astean pare bat orduz. 684070756

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, espe-rientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Helduen zein haurren zaintza lanetarako, edo zerbitzari / garbiketa lanetarako lan bila nabil. 687126811

BESTELAKOAK

Gure Pakea jubilatutako elkartearen inguruan urreko belarritako bat galdu dugu. Aurkitzen baduzue esker-tuko genuke telefono zenbaki honetara deitzea: 666 894 283.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztebxa	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 19	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 20	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 21	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astelehena, 23	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astearte, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 25	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 26	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 27	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 28	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 29	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Manex!

Irailaren 17an, 2 urte bete dituzu eta oso ondo ospatu dugu. Txokolatezko muxu asko-asko familia osoaren partez.

HILDAKOAK



Juana Iceta Olozaga
Irailaren 12an hil zen, 96 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 20

SANTUENEA Jaiak

16:00 Ur jolasak.
 17:00 Txupinazoa, globo gerra.
 18:00 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
 18:30 Txaranga eta poteoa.
 Ondoren, buruhandiak.
 21:00 Auzotarren afaria.
 23:00 DJ Lila.
 03:30 Auzoko Djak eta karaokea.

LARUNBATA 21

SANTUENEA Jaiak

10:00 Puzgarriak.
 13:00 Buruhandiak.
 14:00 Haurren bazkaria.
 16:00 Mus txapelketa.
 16:00 Apar festa.
 17:30 Txokolatada Tragoxkan.
 18:00 Txaranga eta buruhandiak.
 19:00 Sardin jana.
 21:00 DJ Lila.
 00:00 DJ Fantasia, Chuchamba.

IGANDEA 22

SANTUENEA Jaiak

09:00 Esnadeia Jon&Jon.
 11:00 Umeen jolasak.
 11:00 Toka txapelketa.
 12:00 Hamaiketakoa.
 12:00 Zarpantzararak.
 14:00 Bazkaria. Ondoren, bingoa.
 18:00 Buruhandiak.
 18:30 Etxebarria trikitilariak.
 19:00 Piper dastaketa.
 20:45 Sari banaketa.
 21:00 Festen amaierako traka.



Zubieta-Kapito Harri norgehiagoka igande honetan jokatu da goizeko 10:30ean.

Enrike Abril txapelketako partida

Iraileko lehen asteburuan abiatu zen Enrike Abril errebot txapelketako 61. edizioa. Zubietak sendo hasi du finalerako bidea. Irailaren 7an Oiartzunen jokatu zen partidana, 13-9 emaitzarekin azpiratu zuen Txost oiartzuar taldea. Asteburu honetan, zubietarrek etxean jokatuko dute.

Eguraldia oztopo ez bada, lehen fasea urriaren 13an amaituko da. Orduantxe jakingo da nortzuk jokatu duten azken fase erabakigarria.

Irailak 22 igandea
 10:30ean, Zubietako errebot plaza:

- Zubieta
- Kapito Harri (Uztaritze)

Aniztasun Kontseiluaren bilera

Azken hilabeteetan egindako lanak baloratu eta hurrengo urratsez hitz egingo dute ostegun honetan, hilak 19, 18:00etan Pelaiioenean (Kalezar). Horrez gain, herriko jatorri aniztasuna ospatzea helburu duen Mundualdiaz ere jardungo dute bileran. Bilera hau "jatorri aniztasunean eta elkarbizitzan sakontzeko interesa duen edonori" zuzendua dago.

'Usurbil, museo irekia'

Irailak 26 osteguna
 • 'Zero Zabor' bisita gidatua. 10:00etan Udaletxetik.

Irailak 27 ostirala
 • 'Zaintzaren Usurbil' bisita gidatua. 10:00etan Txirikordan.

Irailak 28 larunbata
 • 'Salvatore Elizaren ondarea', bisita gidatua, organo erakustaldiarekin. 12:00etan, Salvatore elizan.

Irailak 29 igandea
 • 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita gidatua.


Izen-ematea, informazioa:
 650usurbilbizi.eus


Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuaren eskubideen aldeko mobilizazioa irailaren 27an egingo da, 20:00etan Mikel Laboa plazan.





www.noaua.eus 



EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!

FROSI, BONBOI BAT JASO... ETA 100 € IRABAZ DITZAKEZU!

Hurbilagoko dendetan egindako erosketa bakoitzeko, bonboi bat oparituko dizugu.
Zure bonboia urre kolorekoa tokatuz gero, 100,00 €-ko balea irabaziko duzu
gure edozein saltokitan erabili ahal izateko.
Zorte on!



EROSLE TXIKIEN
IRAULTZA! 

BAT HASI, BESTEAK SEGI,
GUZTIOK BULTZA!
BERTAKOA GAL EZ DADIN
EGIN DEZAGUN IRAULTZA!

Partekatu sare sozialetan zure
bonboia irekitzen duzun unea
#UrrezkoBonboia traola erabiliz.